



kilometroak

Ibilian-ibilian, buelta!

Lazkao 2026

KILOMETROAK 2026 ILDOAK

Kilometroak 50.urteurrena, 1977tik 2026ra.

2.026ko Kilometroak berezia izango da, borobila, 50. edizioa, eta Lazkaon ospatuko da.

1.977an ospatu zen lehen aldiz Kilometroak; ordukoan Beasain eta Lazkaoko ikastolek antolatu zuten. Jendetza batu zuen lehen edizio hark; Ikastolen mugimenduarekin bat egiten zuen jende asko gerturatu zen, ibilbide hartan kilometroak eginez, Ikastolen alde diru jaso eta ikastolei babesa ematera. Gerora sortu dira Ibilaldia, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats jaiak, ikastolen mugimendurako oso garrantzitsuak izan direnak.

Lehen Kilometroak hartatik jaiak bilakaera nabarmena izan du gaur eguneko eredura iritsi arte. Kilometroak-ek ibilian bete ditu urteak, ibilian lortu helburuak eta ibilian pilatu kilometro mordo bat; eta **ibilian-ibilian** Lazkaora iritsi da **bueltan**, 50. urteurrena ospatzeko.

Aurtengoak helburu bikoitza du: batetik, sorreratik hainbeste kilometroko ibilbide honetan parte hartu dutenei aitortza bat egitea; bestetik, aurretik ditugun erronkei erantzuna ematea, hausnarketa sustatu eta komunitatearekin bat egiteko.

Kilometroak urtea, komunitatea sendotzeko urtea

Lazkaoko ikastolara, egunero, herriko ikasleekin batera etortzen dira baita beste zenbait herrietatik ere: Olaberria, Ataun, Beasain, Ordizia, Gabiria, Legorreta, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zeraindik gerturatzen dira ikasleak egunero gurera; guztira 1.126 ikasle. 733 familiak egin dute hautua une honetan gure ikastolaren parte izateko. Eta familia handi honetan, 120 langile inguruk dihardugu egunero, mimoz eta gertutasunez heziketa prozesuaren momentu desberdinak elikatzen.

Zenbakiak izugarriak dira, zalantzarik ez dago. Ikastolaren hastapenean, 60. hamarkadan, garajetako aulki zaharretan ikasleak magalean hartzen zituzten andereño haiek imajinatu ere ez lukete egingo horrelako garapena.

Kilometroak urte honetan, ikastolarekiko dugun atxikimendua landu nahi dugu, komunitatea sendotzeko balio diezagun. Sorreratik argi izan dugu ikastolok: herritik eta herriarentzako sortutako proiektua gara. Herri aktiboa nahi eta behar dugu, Kilometroak jaia guztion artean egiteko, eta gure komunitatean oinaze kooperatiboa utzi dezan.

Euskara eta euskal kultura oinarri, euskal hezkuntza- sistema nazionala aldarri.

Hasierako helburu eta helmuga berberak lantzen jarraitzen dugu: euskara eta euskaltzaletasuna bultzatzea hezkuntzatik eta herrigintzatik. Ez dugu ahaztu nahi ez Ikastolon jatorria, ez sortzearen ezta izatearen arrazoia ere. Testuinguru berrietara moldatzea dugu helburu, betiere gure hizkuntza eta kulturaren oinarri harturik.

Aniztasuna eta inklusioa ikastolaren proiektua aberasten.

Erronka berrietara etengabe egokitzen ari gara: kulturaren aniztasuna, eduki sortzaile berrien eta sare sozialen eragin disruptiboa... Gure ekintzetan presente izango dugu.

Hauek izango dira gure Kilometroak urtearen ildoak, horietan jarriko dugu indarra, eta jarriko ditugu baita baliabide ekonomikoak ere; lehen harriak jarri eta zubiak eraikitzen hasteko, kilometroak urtea amaitu ondoren ere ibilbidea landuz jarraitzeko.